

Pribatuen Iragarkiak

LANTIK SA

IRAGARKIA, Gizarte Ekintza Sailaren administrazio prozeduren mekanizazioa ezarri eta garatzeko zerbitzuak emateko lehiaketari buruzkoa. 18010

Xedapen Orokorrak

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

4491

EBAZPENA, 2006ko uztailaren 3koa, Graduon eta Graduondoko Ikasketetako errektoreordearena, EHUKo Graduondoko Programa Ofizialak Osatu eta Onartzeko Prozedurari buruzko Arautegia argitaratzeko dena (2007-2008 ikasturtekoa).

Unibertsitateak, bere ahalmenaz baliatuta, arauak eta prozedurak onartu behar ditu, gestioaren alorretako lanak tramitatu ahal izateko. Horrela, bada, graduondoko ikasketen alorrean prestatu eta tramitatu egin da graduondoko ikasketa ofizialen proposamenak osatu eta onartzeko prozedurari buruzko arautegia. Arautegi horretara lotu beharko dira proposamenak egingo dituzten organoak (unibertsitateko ikastegi, sail eta institutuak) zein zerbitzu zentralak.

Arautegiaren helburua da gaur egun indarrean dauden arautegia eguneratzea 2006-2007 ikasturterako eta, era berean, oinarritzko arautegia osatzea 2007-2008 ikasturterako.

Akademi Antolakuntzako eta Doktoregoko Batzordeak arautegiaren aldeko iritzia eman zuen 2006ko apirilaren 12ko bileran.

Gobernu Kontseiluak 2006ko maiatzaren 10eko bileran onartu zuen aipatutako arautegia eta, horren ondorioz, Graduondoko Azpibatzerdeak ahalmena dauka arautegia garatuko duten arau osagarriak emateko. Bestalde, gestioaren ardura daukan errektoreordearen gain uzten da arautegia ezartzean sor daitezkeen gorabeherak interpretatu eta ebazteko ahalmena.

Anuncios Particulares

LANTIK, S.A.

ANUNCIO relativo al concurso para la prestación de servicios de Desarrollo e implantación de la mecanización de los procedimientos administrativos del Departamento de Acción Social. 18010

Disposiciones Generales

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

4491

RESOLUCIÓN de 3 de julio de 2006, de la Vicerrectora de Estudios de Grado y Posgrado de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que procede a la publicación de la Normativa sobre el procedimiento de elaboración y aprobación de los Programas Oficiales de Posgrado, curso académico 2007-2008.

La Universidad, en el ejercicio de sus competencias, debe establecer normas y procedimientos para tramitar las tareas de las diferentes áreas de gestión. En el área de Estudios de Posgrado se ha elaborado y tramitado la normativa por la que se regula el procedimiento de elaboración y aprobación de las propuestas de los Estudios Oficiales de Posgrado, que servirá de marco de actuación tanto para los centros, departamentos e institutos de la Universidad, órganos proponentes de las propuestas, como para los diversos servicios centrales.

El objetivo de esta normativa es, además de actualizar para el curso 2006-2007 la normativa vigente, configurar una normativa básica para el curso 2007-2008.

La propuesta sobre la citada normativa fue informada favorablemente por la Comisión de Ordenación Académica y de Doctorado, en la sesión celebrada el día 12 de abril de 2006.

Aprobada esta normativa por el Consejo de Gobierno, en su sesión de fecha 10 de mayo de 2006, se faculta a la Subcomisión de Posgrado para elaborar normas complementarias que desarrollen la presente normativa, así como al Vicerrector o a la Vicerrectora responsable de la gestión para la interpretación y resolución de cuantas cuestiones se planteen en la aplicación de esta normativa.

Aipatutako guztia kontuan hartuta, eta Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legeko 10.2 artikulua dioena betetzeko (2004ko martxoaren 12ko EHAA), honakoa

ERABAKI DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Buletin Ofizialean argitaratzea EHUko Graduondoko Programa Ofizialak Osatu eta Onartzeko Prozedurari buruzko Arautegia (2007-2008 ikasturtekoa). Eranskinean dago jasota arautegi hori.

Leioa, 2006ko uztailaren 3a.

Graduko eta Graduondoko Ikasketetako errektoreordea,
CARMEN GONZÁLEZ MURUA.

ERANSKINA

HITZAURREA

Graduondoko programa ofizialen helburua eta edukia.

1.— Graduondoko ikasketa ofizialak ikasleen espezializaziorako bidea dira prestakuntza akademikoaren alorrean, lanekoan eta ikerketakoan. Aipatutako ikasketak osatzen dituzten programen bidez master titulua eskuratu ahal da eta, ondoren, doktore titulua.

2.— Graduondoko programetan honako hauek definituko dira:

a) Bigarren zikloa (masterra): master titulu ofiziala eskuratzera zuzendutako unibertsitate ikasketak dira, eta gutxienez 60 kreditu izango dituzte eta gehienez, 120. Prestakuntza aurreratua jasoko da, jakintza arlo anitzekoa, espezializazio akademiko zein profesionale-ra zuzendua edo ikerlanak egiten hastea bultzatuko duena.

b) Hirugarren zikloa (doktoregoa): ikasleei ikerketa teknikan sakontzeko aukera ematen dieten unibertsitateko ikasketak dira. Ikerketaren alorreko prestakuntzara zuzendutako ikastaroak, mintegiak edo bestelako jarduerak antolatuko dira horretarako, eta ikasleek doktorego tesia egin eta aurkeztu beharko dute, hau da, ikerlan original bat. Hirugarren zikloa gainditzen duten ikasleek doktore titulu ofiziala eskuratzeko dute, goi-mailako hezkuntzako maila gorena, maila akademiko gorena ere egiaztatzen duena eta, indarrean dagoen legeriari jarraiki, irakaslanean eta ikerlanean aritzeko gaitasuna ematen duena.

3.— Graduondoko programa batek master bat edo mota desberdineko bat baino gehiago bildu ditzake (ikerketakoa, profesionala edo akademikoa), bai eta

Por todo lo anterior, y en cumplimiento del artículo 10.2 de la Ley 3/2004 de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco (BOPV de 12 de marzo de 2004),

RESUELVO:

Artículo único.— Proceder a la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial del Estado de la Normativa sobre el procedimiento de elaboración y aprobación de los Programas Oficiales de Posgrado para el curso 2007-2008, recogida en el anexo a la presente resolución.

En Leioa, a 3 de julio de 2006.

La Vicerrectora de Estudios de Grado y Posgrado,
CARMEN GONZÁLEZ MURUA.

ANEXO

PRÓLOGO

Objetivo y contenido de los Programas Oficiales de Posgrado.

1.— Los Estudios Oficiales de Posgrado tienen como finalidad la especialización del alumnado en su formación académica, profesional o investigadora y se articulan en programas integrados por las enseñanzas conducentes a la obtención de los títulos de Máster y, en su caso, posteriormente de Doctor, Doctora.

2.— En cada Programa de Posgrado se definirán:

a) 2.º Ciclo (Máster): son los estudios universitarios conducentes a la obtención del título oficial de Máster y tendrán una duración mínima de 60 créditos y máxima de 120. Estarán dedicados a la formación avanzada, de carácter especializado o multidisciplinar, dirigido a una especialización académica o profesional o bien a promover la iniciación en tareas investigadoras.

b) 3er Ciclo (Doctorado): son los estudios universitarios que tienen como finalidad la formación avanzada del alumnado en las técnicas de investigación. Tal formación podrá articularse mediante la organización de cursos, seminarios u otras actividades dirigidas a la formación investigadora, e incluirá la elaboración y presentación de la correspondiente tesis doctoral, consistente en un trabajo original de investigación. La superación del ciclo dará derecho a la obtención del título oficial de Doctor o Doctora que representa el nivel más elevado en la educación superior, acredita el más alto rango académico y faculta para la docencia y la investigación, de acuerdo con la legislación vigente.

3.— Un programa de posgrado puede incluir uno o a varios títulos oficiales de máster de varios tipos (investigación, profesional, académico), así como diferen-

doktorego bat osatuko duten ikerketa lerro desberdinak ere.

4.– Masterrean zehaztutako ikasketak gaintzen dituen ikasleak titulua eskuratuko du. Tituluan masterrean izena agertuko da, bai eta espezialitatea ere horrelakorik izanez gero. Doktorego ikasketak eginez gero, Euskal Herriko Unibertsitateko doktore titulua lortuko du ikasleak, eta agirian jasota agertuko da masterri dagokion programaren izena.

5.– EHUK ez ditu ontzat emango funtsean helburu eta eduki berberak dauzkaten graduondoko programa ofizial bi.

6.– Graduondoko ikasketa ofizialetan sartzeari buruzko 56/2005 Errege Dekretuko 3.1 artikuluan aipatutako salbuespena ez da aplikatuko graduoko titulazioen berezko jarraibideak argitaratu arte.

I. KAPITULUA
UPV/EHUK BERAK BAKARRIK
ANTOLATZEN DITUEN GRADUONDOKO
PROGRAMA OFIZIALAK

1. artikulua.– Graduondoko programa ofizialen antolaketa eta masterrak proposatzen dituzten organoak.

1.– EHUKo Graduondoko Ikasketetako Azpibatzordea da graduondoko programa ofizialak diseinatu eta Akademia Antolakuntzako eta Doktoregoko Batzordeari proposamenak aurkezteko arduraduna. Horretarako, masterren proposamenak izango dituzte oinarri, hau da: haien helburuak eta edukiak kontuan hartuta osatuko dituzte.

2.– Graduondoko programa ofizialen izena orokorra izan behar da eta ezin izango da, oro har, aldatu. Dena dela, horrek ez du esan nahi programa horren menpe antolatzen diren masterrak ezin direnik gizartearen premia eta eskarrietara egokitu.

3.– EHUKo Graduondoko Ikasketetako Azpibatzordeak koordinatzaile bat izendatuko du graduondoko programa bakoitzerako. Doktorego tesiak zuzentzeko unibertsitateak onartuta duenari jarraiki, koordinatzaile hori masterraren arduradunetako bat izango da, ikerketan esperientzia daukana.

4.– Graduondoko programa ofizial bakoitzean batzorde akademiko bat egongo da, programa osatuko duten masterrak koordinatuko eta doktoregoko jarduerak onartuko dituena.

5.– Graduondoko programako Batzorde Akademikoa programa hori osatzen duten masterren arduradunek osatuko dute edo, bestela, Graduondoko Ikasketetako Azpibatzordeko kideek egokitzen hartzen dituztenek. Batzordearen burua programaren koordinatzaile izango da.

6.– Ikerketako masterrak edo master akademikoak ikastegiekin, sailekin edo institutuekin proposatuko dituzte,

tes líneas de investigación, las cuales definirán un doctorado.

4.– El alumnado que finalice las enseñanzas exigidas en un máster obtendrá el título correspondiente con la denominación del master y, en su caso, de la especialidad superada. Si realiza los estudios de doctorado el título que obtendrá será el de Doctor o Doctora por la Universidad del País Vasco/EHU, con la denominación del programa en el que esté integrado el máster superado.

5.– En la UPV/EHU no podrán aprobarse dos programas oficiales de posgrado cuyos objetivos y contenidos coincidan sustancialmente.

6.– La excepcionalidad prevista en el artículo 3.1 del RD 56/2005 sobre el acceso a los estudios oficiales de posgrado no será de aplicación hasta la publicación de las directrices propias de las titulaciones de grado.

CAPÍTULO I
PROGRAMAS OFICIALES DE POSGRADO
ORGANIZADOS EXCLUSIVAMENTE POR LA
UPV/EHU

Artículo 1.– Organización de los Programas Oficiales de Posgrado (POP) y órganos proponentes de los másteres.

1.– La Subcomisión de Estudios de Posgrado de la UPV/EHU será el órgano responsable de diseñar y proponer a la Comisión de Ordenación Académica y de Doctorado, los Programas Oficiales de Posgrado (POP), a partir de las propuestas de los másteres, teniendo en cuenta sus objetivos y contenidos.

2.– La denominación de los POP debe ser genérica y estable en el tiempo, lo que no implica que los másteres que se organicen bajo dicho POP no puedan ajustarse a las necesidades o demandas sociales.

3.– La citada Subcomisión nombrará un coordinador o coordinadora de cada programa de posgrado de entre los o las responsables de máster con una experiencia investigadora acreditada, según lo establecido en nuestra Universidad para la dirección de tesis doctorales.

4.– En cada programa oficial de posgrado existirá una Comisión Académica cuya finalidad será la de coordinar los másteres que lo integran y aprobar las actividades de doctorado.

5.– La Comisión Académica del programa de posgrado estará formada por los o las responsables de cada uno de los másteres que integren el programa de posgrado y, en su caso, por aquellos otros miembros que la Subcomisión de Estudios de Posgrado considere adecuados. Será presidida por el coordinador del Programa.

6.– La iniciativa para proponer un máster de investigación o profesional corresponde a un Centro o De-

banaka edo taldean. Proposamena ikastegiak egiten badu, irakaskuntzan parte hartuko duten sailtako kontseiluen baimena beharko da. Proposamena sail batek egiten badu, eskolak emateko erabiliko diren ikastegien baimenak beharko dira hango gelak, mintegiak, laborategiak... erabili ahal izateko. Beste erakunde publiko edo pribaturen batean emango badira, hitzarmena sinatu beharko da.

7.– Master bakoitzean batzorde akademiko bat eratu da. Batzordearen burua masterraren arduraduna izango da (EHUn arduraldi osoan diharduen irakasle doktore bat), eta masterraren parte hartzen duten irakasle eta ikertzaileetako bi ere egongo dira batzordean. Hauek dira batzordearen eskumenak:

a) Masterreko edukiak definitzea, ikasleek berenganatuko dituzten gaitasunak zehaztea, eta masterreko metodologia finkatzea.

b) Indarreko hizkuntza arautegiak graduondoko programei buruz dioena betetzen dela zaintzea.

c) Ikasleak aukeratzeko irizpideak onartzea.

d) Ikasleak hautatu eta onartzea, eta kanporatuen errekurtsioak ebaztea. Dena dela, ikasleek, onartuak izateko, matrikula egin beharko dute UPV/EHUko kasuan kasuko administrazio atalean.

e) Ikasleen ebaluazioaren gaineko arazoak ebaztea.

f) Ikasleen praktiken eta mugikortasun jardueren arduraduna izendatzea.

g) Masterraren akademi esparruko beste eginkizun guztiak.

8.– Masterretako ekimenak osatzea eta beharrezko diren tramiteak eta gestioak egiteko Graduondoko Ikasketen eta Etengabeko Prestakuntza Atalekoek laguntza administratiboa emango dute.

2. artikulua.– Programaren koordinatzailearen eta masterraren arduradunaren eginkizunak.

1.– Hauek dira graduondoko programa ofizialen koordinatzailearen eginkizunak:

a) Graduondoko programa ofizialeko Batzorde Akademikoaren buru izatea.

b) Graduondokoari buruzko gai guztiak Graduondoko Ikasketetako Azpibatzaileari aurkeztea.

c) Jarraipen bilerak egitea graduondoko programa osatzen duten masterren arduradunekin.

d) Programa aurrera behar bezala eraman eta ondo funtziona dezan beharrezko izan daitezkeen gainerako guztiak.

partamento/Instituto, de forma individual o conjunta. Cuando la propuesta sea de un Centro, deberá contar con el acuerdo del Consejo de los Departamentos implicados en la docencia. Si la propuesta es de un Departamento, deberá existir el acuerdo con los Centros Universitarios en los que se imparta sobre la utilización de aulas, seminarios, laboratorios, etc. Si la implantación se realiza en otras entidades públicas o privadas deberá suscribirse el correspondiente convenio.

7.– En cada máster se constituirá una Comisión Académica presidida por el/la responsable del máster que será profesor o profesora de la UPV/EHU, Doctor, Doctora, y con dedicación completa; y formada por otros dos miembros del Personal Docente e Investigador participantes en el mismo. Las competencias de esta comisión serán:

a) Definir los contenidos de las enseñanzas del máster, las competencias a alcanzar por el alumnado y la metodología a aplicar en el máster.

b) Velar por el cumplimiento en lo que, en materia relativa a los POP, establezca en su momento la normativa lingüística.

c) Establecer los criterios de selección del alumnado.

d) Realizar la selección, admisión y resolver los recursos de admisión. La admisión quedará supeditada, en todo caso, a la formalización de la correspondiente matrícula en la unidad administrativa correspondiente de la UPV/EHU.

e) Resolver las incidencias sobre la evaluación del alumnado.

f) Designar al o la responsable de prácticas/movilidad del alumnado.

g) Desempeñar las competencias que correspondan al ámbito académico del máster.

8.– La elaboración de las iniciativas de los másteres, su tramitación y la gestión derivada de las mismas contarán con el apoyo administrativo de la Unidad de Estudios de Posgrado y Formación Continua.

Artículo 2.– Funciones del coordinador del Programa y del responsable del Máster.

1.– Serán funciones del profesor Coordinador o profesora Coordinadora del Programa Oficial de Posgrado:

a) Presidir la Comisión Académica del POP.

b) Elevar a la Subcomisión de Estudios de Posgrado todas las cuestiones relativas al Posgrado.

c) Establecer reuniones de seguimiento con los o las responsables de los másteres que conforman el Programa de Posgrado.

d) Aquellas tareas necesarias para el buen desarrollo y funcionamiento del programa.

2.– Hauek dira masterraren arduradunaren eginkizunak:

a) Graduondoko programaren koordinatzailearekin elkarlanean aritzea programaren jarraipena egiteko.

b) Masterrari buruzko gai guztiak graduondoko programaren koordinatzaileari aurkeztea.

c) Masterraren memoria akademikoan zehaztutako ikasleen praktiken jarraipena egitea, beharrezkoa izanez gero.

d) Masterra aurrera eramateko beharrezkoak diren giza baliabideen eta baliabide materialen premiak jasotzea memoria ekonomikoan.

e) Masterra ematean gerta daitezkeen arazoak konpontzea, masterreko Akademia Batzordearen laguntzaz.

f) Masterra lortzera bideratutako ikasketak aurrera behar bezala eraman eta ondo funtziona dezan beharrezko izan daitezkeen gainerako guztiak.

3. artikulua.– Master ofizialen proposamenetan jasota bete beharrekoak.

Masterren proposamenak inprimaki arautuetan egingo dira, eta informazio hau emango da:

1.– Masterraren izena (ezingo da izan Gobernu Kontseiluak onartutako beste batena).

2.– Proposamena egin duen ikastegia edo saila/institutua. Ikastegi edo sail/institutu bat baino gehiago direnean proposamenaren egileak, arduraduna zein den.

3.– Masterreko proposamenak eragindako ikastegietako batzarren edo sailletako/institutuetako kontseiluan baimena.

4.– Proposamena sail/institutu batek egiten badu, eskolak emateko erabiliko diren ikastegi baimenak hango gelak, mintegiak, laborategiak... erabiltzeko.

5.– Ikastegi edo institutuen proposamenetan, proposamenean agertzen diren irakasle guztien sailletako kontseiluen baimenak.

6.– Unibertsitate edo erakunde partaide guztiekin sinatutako akordioak.

7.– Masterraren irakasle arduraduna, eta Batzorde Akademikoko kideen zerrenda.

8.– Gaien zerrenda:

a) Gai bakoitzak gutxienez 3 ECTS izan behar ditu.

b) ECTS kreditu bakoitza 25 lan orduren parekoa da, ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak bereganatzeko ikasleak egin beharreko lanari dagozkionak. Lanorduhorietan honakoak sartzen dira: eskola-orduak, bai teo-

2.– Serán funciones del profesor o profesora responsable del máster:

a) Colaborar con el coordinador o coordinadora del programa de Posgrado en el seguimiento del mismo.

b) Elevar al coordinador o coordinadora del Programa de Posgrado todas las cuestiones relativas al máster.

c) Realizar el seguimiento, en su caso, de las prácticas del alumnado del máster establecidas en la memoria académica y docente.

d) Identificar y recoger en la memoria económica las necesidades de los diferentes tipos de equipamiento y recursos humanos necesarios para desarrollar el máster.

e) Resolver las incidencias en el desarrollo del máster asesorado por la Comisión Académica del máster.

f) Todas aquellas otras tareas necesarias para el buen desarrollo y funcionamiento de las enseñanzas conducentes a la obtención del Máster.

Artículo 3.– Contenido y requisitos de las propuestas de los Másteres Oficiales.

Las propuestas de los másteres se realizarán en los modelos normalizados y comprenderán la siguiente información:

1.– Denominación del Máster, que no podrá coincidir con la de otro aprobado por el Consejo de Gobierno.

2.– El Centro o Departamento/Instituto proponente. Si hubiera varios Centros o Departamentos/Institutos implicados, se especificará cuál de ellos es el responsable.

3.– Acuerdo de la Junta de Centro o de los Consejos de Departamentos/Institutos implicados en el que se haya aprobado la propuesta del máster.

4.– En las propuestas de los Departamentos/Institutos, acuerdo con los Centros en los que se imparte el máster sobre la utilización de aulas, seminarios, laboratorios, etc.

5.– En las propuestas de los Centros o de los Institutos, acuerdo de los Consejos de los Departamentos al que pertenecen los profesores implicados.

6.– Acuerdo con las Universidades, entidades o Instituciones participantes.

7.– El Profesor o Profesora Responsable del Máster y la relación de los miembros de la Comisión Académica.

8.– Las materias que lo componen:

a) Cada materia tendrá un mínimo de 3 créditos ECTS.

b) Cada crédito ECTS equivale de 25 horas de trabajo del alumnado para la adquisición de los conocimientos, capacidades y destrezas correspondientes. En esta asignación deberán estar comprendidas las horas de

rikoak bai praktikoak; ikasteko orduak; mintegiak, lanak edo praktikak egiteko orduak; eta azterketak eta ebaluazio-probak prestatu eta egiteko beharrezkoak.

c) UNESCOko sailkapeneko kode bat izango dute (lau edo sei digitukoak).

d) UPV/EHUko sail/institutu batera atxikita egongo dira edo, hala dagokionean, unibertsitate edo erakunde arduradunera.

e) Oinarritzko prestakuntzaren parte diren edo ez adieraziko da.

9.– Gaiaren kreditu bakoitzari ikasgelako 7,5 ordutik 10 ordura bitarteko balioa ezarriko zaio. Gaiaren arduradunak erabakiko du kasu bakoitzean kreditua zenbat orduren parekoa izango den. Dena dela, ordu aukera hori ezingo da aplikatu praktikumetan, proiektuetan, praktika tutelatuetan eta antzeko gaietan.

10.– Irakaskuntza-mota horiek aldi berean erabili ahal izango dira gai bat irakastean edo gai bateko atalak azaltzean. Hauek dira ikasgelako irakaskuntza-motak:

Eskola magistrala	EM
Mintegiak	M
Ikasgelako praktikak	IP
Laborategiko praktikak	LP
Ordenagailuko praktikak	OP
Tailerrak (ez-industrialak)	T
Tailer industrialak	TI
Praktika klinikoak	PK
Landa praktikak	LP

11.– Ikasgelako ordu guztien % 60 irakatsi ahal izango dira, gehienez ere, eskola magistral moduan. Ikasgelako gainerako orduetan aurreko atalean aipatutako irakaskuntza motak irakatsiko dira.

12.– Proposamenean, gai baterako helburuak, gaitasunak eta trebetasunak behin zehaztuta, denbora zehaztu behar da irakaskuntza-mota bakoitzerako, eta zehaztu ere, bai irakaslearentzat bai ikaslearentzat zehaztu behar da. Informazio hori guztia Irakasleen Plantilako Zuzendaritzak ezarritako prozedurari jarraituz bilduko da.

13.– Gai bakoitzerako irakasle-taldea eta irakatsi behar diren banaketa.

14.– Gai bakoitzak honako esperimentalitasun balio edo indizeetako bat izan behar du zehaztuta:

- 1 Irakasgai teorikoak, praktika gabe.
- 2 Noizean behin ordenagailua edo ikus-entzunezko gailuren bat erabili beharra izango duten irakasgaiak.
- 4 Ordenagailua edo ikus-entzunezko gailuren bat sarri erabili beharra izango duten irakasgaiak.

clases lectivas, teóricas o prácticas, las horas de estudio, las dedicadas a la realización de seminarios, trabajos o prácticas, y las exigencias para la preparación y realización de los exámenes y pruebas de evaluación.

c) Estarán vinculadas a un código de la clasificación de la UNESCO, de cuatro o seis dígitos.

d) Se adscribirán a un Departamento/Instituto de la UPV/EHU o, en su caso, a la universidad o institución responsable de su impartición y

e) Se indicará si forman o no parte del núcleo formativo básico.

9.– Por cada crédito que tenga una materia se imputarán entre 7,5 y 10 horas de docencia presencial, quedando a criterio del responsable de la materia, la elección del valor concreto en cada caso. Se exceptúan de esta norma los practicum, proyectos, prácticas tuteladas y materias análogas.

10.– Para estos estudios se establecen los siguientes tipos de docencia presencial, que deben utilizarse combinadamente de la forma más adecuada a los objetivos de la enseñanza:

Clase Magistral	M
Seminarios	S
Prácticas de Aula	PA
Prácticas de Laboratorio	PL
Prácticas de Ordenador	PO
Talleres (no industriales)	TA
Talleres Industriales	TAI
Prácticas Clínicas	PCL
Prácticas de Campo	PCA

11.– Del total de las horas presenciales de una materia podrán impartirse mediante el tipo de docencia magistral un máximo del 60%. El resto de las horas presenciales de la materia se imputarán al resto de los tipos de docencia señalados en el apartado anterior.

12.– En las propuestas, para cada materia, una vez realizada la descripción de los objetivos, las competencias, las destrezas y las habilidades, debe cuantificarse el tiempo que se requiere, para cada tipo de docencia, tanto del docente como del estudiante. Esta información se recogerá de acuerdo con el procedimiento que se establezca desde la Dirección de Plantilla Docente.

13.– El equipo docente de cada materia y la distribución del encargo docente entre sus miembros.

14.– Cada materia tiene que tener definido uno de los siguientes valores o índices de experimentalidad:

- 1 Asignaturas sólo teóricas, sin prácticas.
- 2 Asignaturas que requieran la utilización ocasional de ordenadores y/o aparatos audiovisuales.
- 4 Asignaturas que precisan la utilización intensiva de ordenadores y/o aparatos audiovisuales.

6 Material suntsigarri edo laborategiko material ez oso garestia erabili beharra izango duten irakasgaiak.

8 Material suntsigarri edo laborategiko material garestia sarri erabili beharra duten irakasgaiak.

15.– Hautazko irakasgaiak:

a) Masterrak espezialitateak baldin baditu, espezialitate baterako ikasketa planean jasotako hautazko irakasgaien kreditu-kopurua ezin izango da izan espezialitatea gainditzeko beharrezko den kreditu-kopurua baino handiagoa. Masterrak espezialiterik ez badauka, hautazko irakasgaien kreditu-kopurua ezin izango da izan ikasleak osatu beharreko hautazko kreditu-kopurua baino % 200 handiagoa.

b) Ikasturte bakoitzean benetan ere eskaintzen diren hautazkoei dagokienean, masterrak ez baldin badauka espezialiterik, hautazkoen eskaintza ezin izango da izan ikasleak osatu beharreko hautazko kreditu-kopurua baino % 50 handiagoa.

16.– Doktoregoan sartzea.

Ikerketako masterretan honako hauek zehaztuko dira: ikerketa lerroak, doktorego tesiak zuzenduko dituzten irakasleen eta ikertzaileen zerrenda, ikasleen kopurua gehienera, eta ikasleak onartu eta hautatzeko irizpideak.

4. artikulua.– Proposamenak aurkeztu eta onartzea.

1.– Masterretarako proposamenak Euskal Autonomia Erkidegoko kalitate agentziak (UNIQUAL) zehaztutako dituen irizpideei. Jarraituz aurkeztuko dira (agentzia hori sortzen denean). Agentzia hori sortu birtartean, ANECAk edo unibertsitate-mailako beste kalitate agentzia autonomiko batzuk zehaztutako irizpideei jarraituz aurkeztuko dira. Irizpideok eranskinean daude jasota (Graduondoko programa ofizialen eskararak aurkeztu eta onartzeko arrazoiak azaltzen dituen memoria izenburudun eranskina).

2.– Masterreko arduradunek irakaskuntzarekin zehaztua duten ikastegietako batzarrei edo saileko/instituetako kontseiluei aurkeztuko dizkiete proposamenak haiek onartu dituzten.

3.– Masterraren arduradunek, berau antolatu eta egingo den ikastegiko batzarren edo sailetako/instituetako kontseiluen onspena jaso ondoren, aurreko artikuluan zehaztutako dokumentazioarekin batera aurkeztuko dituzte proposamenak UPV/EHUko errejistro orokorretan, gestioaren ardura daukan errektoreordeari zuzenduta. Errektoreordeak Graduondoko Ikasketetako Azpibatzordeari aurkeztuko dizkio proposamenok, iritzia eman dezan.

4.– Proposamenak aditu talde batek aztertuko ditu ANECAk proposatutako irizpide edo adierazleei jarraituz. Proposameneko atal bakoitzak honako haztapena izango du:

6 Asignaturas en las que se utiliza material fungible y de laboratorio de coste intermedio.

8 Asignaturas que requieran la utilización intensiva de laboratorios y material fungible de alto coste.

15.– Materias optativas:

a) Las materias optativas de un máster configurado con especialidades no podrán superar en créditos, en el plan de estudios, para cada especialidad, el número de créditos que tiene que realizar el alumnado para obtener dicha especialidad. Si el máster no incluyese especialidades, el número de créditos correspondientes a las materias optativas, no podrá superar el 200% de los créditos optativos a realizar por el alumnado.

b) En cuanto a la oferta efectiva de la optatividad para cada curso académico, en el caso de másteres sin especialidades, ésta no podrá incrementarse en más de un 50% sobre los créditos optativos que tiene que superar el alumnado.

16.– Acceso a Doctorado.

Los másteres de investigación establecerán las líneas de investigación, la relación de profesores o profesoras e investigadoras o investigadores encargados de la dirección de tesis doctorales, el número máximo de estudiantes, así como los criterios de admisión y selección.

Artículo 4.– Presentación y aprobación de las propuestas.

1.– Las propuestas de los másteres se presentarán según se establezca, en su momento por la Comunidad Autónoma a través de la agencia de calidad –UNIQUAL-. Hasta entonces se realizarán en el formato establecido por la ANECA y otras agencias autonómicas de calidad universitarias, que figura como anexo a esta normativa, denominado Memoria justificativa para la presentación y aprobación de solicitudes de programas oficiales de posgrado.

2.– Los o las responsables del máster, presentarán las propuestas a las Juntas de Centro o a los Consejos de los Departamentos/Institutos implicados en la docencia, para su aprobación.

3.– Los o las responsables del máster, una vez obtenida la aprobación por parte de las Juntas de Centro o de los Consejos de los Departamentos/Institutos, presentarán las propuestas con la documentación señalada en el artículo anterior, en los Registros Generales de la UPV/EHU dirigidas al Vicerrectorado responsable de esta gestión, quien las someterá a la consideración de la Subcomisión de Estudios de Posgrado.

4.– Las propuestas recibidas serán analizadas por un comité de expertos quien valorará cada uno de los apartados de la misma con los criterios e indicadores propuestos por la ANECA, con la siguiente ponderación:

Programaren justifikazioa	% 10
Prestakuntza programa	% 15
Irakaskuntzaren antolaketa eta gestioa	% 15
Giza baliabideak	% 45
Baliabide materialak	% 5
Kalitatea bermatzeko sistemak	% 5
Bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioa	% 5

5.– Adituen iritzia kontuan hartuta, Graduondoko Ikasketetako Azpibatzerdeak txostena egingo du Akademia Antolakuntzako eta Doktoregoko Batzordeak aztertu eta Gobernu Kontseiluari aurkez diezaion hark proposamena onar dezan.

6.– Akademia Antolakuntzako eta Doktoregoko Batzordeak proposamenak baztertu ahal izango ditu, baldin eta ez badu lortzen irizpide bakoitzerako zehaztutako balorazioaren % 60. Izan ere, muga hori berme izango da ebaluazio eta akreditazio prozesua egoki gainditzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko kalitate agentziak (UNIQUAL) hala zehazten duenean. Agentzia hori sortu bitartean, ANECAren irizpide eta adierazleak erabiliko dira.

7.– Proposamena atzera botaz gero, organo proposamen-egileak errekurtsioa aurkeztu ahal izango dio Akademi Antolakuntzako eta Doktoregoko Batzordeari.

8.– Gobernu Kontseiluak, ikusita Akademi Antolakuntzako eta Doktoregoko Batzordearen iritzia, master eta doktore titulu ofizialak eskuratzea zuzendutako graduondoko programa ofizialen eskaintza onartuko du. Proposamena Gizarte Kontseilura bidaliko du iritzia eman dezan. Ondoren, Autonomia Erkidegoaren iritzia eskatuko da, aipatutako ikasketak jartzeko beharrezkoak diren tramiteekin jarraitzeko.

9.– Proposamenak aurkezteko epea gestioaren arduradun daukan errektoreordetzak zehaztuko du.

5. artikulua.– Irakasleak.

1.– Ikerketa masterretako ikasketa planeko kredituen % 60, gutxienez, UPV/EHUko plantilako irakasleek eman behar dute; master profesionaletan, berriz, gutxienez % 40.

2.– Masterreko irakasleren bat ez baldin bada proposamena egin duen sailekoa, bere saileko kontseiluaren baimena izan beharko du. Baimen hori proposamenean jasota ageri beharko da. Beste unibertsitate batzuetako irakaslerik izanez gero ere, baimena erantsi beharko da.

3.– Graduondoko programa bat koordinatzeko lanengatik 2 kreditu emango dira. Master baten ardura izateagatik 6 kreditu emango dira; master bat baino gehiagoren ardura izateagatik, gehienez ere, 9 kreditu emango dira.

Justificación del Programa	10%
Programa Formativo	15%
Organización y gestión de la enseñanza	15%
Recursos Humanos	45%
Recursos materiales	5%
Sistemas de garantía de calidad	5%
Viabilidad Económica Financiera	5%

5.– A la vista de la valoración de los expertos, la Subcomisión de Estudios de Posgrado elaborará un informe que someterá a la consideración de la Comisión de Ordenación Académica y de Doctorado, para que ésta elabore la propuesta de aprobación al Consejo de Gobierno.

6.– La Comisión de Ordenación Académica y de Doctorado podrá rechazar las propuestas que no superen un 60% en la valoración de cada uno de los criterios establecidos anteriormente, como garantía de éxito en el proceso de evaluación y acreditación que se establezca en su momento por la Comunidad Autónoma a través de la agencia de calidad –UNIQUAL–. Hasta entonces se realizarán con los criterios e indicadores propuestos por la ANECA.

7.– El órgano proponente de la propuesta rechazada podrá recurrir ante la COAD.

8.– El Consejo de Gobierno, a la vista del informe de la Comisión de Ordenación Académica y de Doctorado, aprobará la oferta de los Programas Oficiales de Posgrado conducentes a la obtención de los títulos oficiales de Máster y de Doctor o Doctora. La propuesta se elevará al Consejo Social para que tras su informe, se someta a la consideración de la Comunidad Autónoma para continuar los trámites necesarios para la implantación de las correspondientes enseñanzas.

9.– El plazo de presentación de las propuestas será el que se establezca desde el Vicerrectorado responsable de esta gestión.

Artículo 5.– Profesorado.

1.– En los másteres de investigación, al menos un 60% de los créditos del Plan de Estudios estará a cargo del profesorado perteneciente a la UPV/EHU y para los másteres profesionales, al menos un 40%.

2.– Un profesor o profesora, que vaya a impartir docencia en un máster no propuesto por el departamento al que pertenece, debe obtener previamente la autorización de su Consejo de Departamento. Este requisito deberá acreditarse en la propuesta. Esta autorización también es necesaria para los profesores de otras universidades.

3.– Las tareas de coordinación de un programa de posgrado se recompensarán con 2 créditos. Las tareas por asumir la responsabilidad de un máster se recompensarán con 6 créditos, hasta un máximo de 9 cuando se asuma la responsabilidad de más de un máster.

4.– Master amaierako lanak edo antzekoak zuzentzeagatik emango den kreditu-kopurua egin beharreko lanari emandako kreditu-kopuruaren araberakoa izango da, hau da: ikasleari emandako 6 kredituko, irakasleari kreditu 1 emango zaio.

